

Aurkezpena: *Euskalingua* – 9

Irakurle, agur t' erdi,

Betiko moduan, garai honetan urteko bigarren zenbakia dakargu, Durangoko Liburu Azokan zuenganatzeko. Oraingoan ere zortzi artikulua oso ezberdin biltzen ditu zenbaki honek.

Batuketa edo corpusaren arloan hiru lan ekarri ditugu *Euskalingua* 9ra: morfologia mailan, Txomin Solabarrietak “Bizkaiko aditz laguntzailearen adizkitegia” izenburupeko lanean hainbat iturrik emandako aditz paradigmak batu ditu, tauletan eta zerrendan ordena alfabetikoan. Kontsultarako Solabarrietak egin duen lan itzela lagungarria izango delakoan irakurleen esku utzi gura izan dugu.

Bestetik, Eneko Barrutiak “Bermeoko arrantzaleei egineko grabazioen transkripzioa: I” ekarri digu arrantza-munduan interesa daukagun guztiontzat eskuragarri, eta transkripzioa herriko euskararen corpusaren lekuko izan dadin. Enekok berak dionez, “corpus hori zenbat eta handiagoa izan, orduan eta errazago atera ahal izango ditugu era askotariko ikaskizun eta ondorioak”.

Azkenik, batuketa arloko hirugarren lana daukagu: Iñaki Gaminderen “Olgetan-Benetan: Umezaroaren lexikoa Bizkaian (I)”. Tradizio zaharreko Bizkaiko hainbat herritan batuko berba eta esapideak dakartzat Iñakik, herrian jaso dituen moduan, testuinguru eta guzti, eta forma normalizatuan. Artikulu bildumaren lehen atala da hau, nagusiekin egiteko olgetak, eta geroko beste hamabi zenbakietan ekarriko ditugu gainontzekoak: karraderan egitekoak, salto egitekoak, zabukatzekoak, elkar harrapatzekoak, korroan egitekoak, ostendu egitekoak, jaurtikitzekoak, imitatu egitekoak, trebeziazkoak, piztiekin egitekoak, hizkuntza olgetak eta jostailuekin egitekoak. Zalantzarik ez dago umeen berbeta galdu ez dadin, ez dakigunok ikas eta erabil dezagun oso garrantzitsua dela holako lanak jende artera zabaltzea.

Hizkuntzalaritzaren lan teorikoagoen artean, hiru arlo ezberdinetakoak ditugu zenbaki honetan: hizkuntza ukipen eta transferentzia linguistikoa aztergai duena, morfologiaren gainekoa eta alde sozialak eragindako geolinguistikaren ingurukoa.

Jennifer Austin hizkuntzalari ipar-amerikarrak gaur egungo euskarak joskera mailan jaso duen gazteleraren transferentzia edo eragina erakutsi gura du. Lau

hiztunei jasoko grabazioen datuak kontuan izanda, datibo markaketa bikoitza (esate baterako, *harrapatuko dizut harrapatuko zaitut*-en ordeztaraz) Euskal Herriko gazteleran gertatzen den *leísmo* (*le he visto* a *Mikel lo he vistoren* ordeztaraz) fenomeno ezaguna ageri den egoera edo testuinguru berberetan agertzen dela topatu eta euskararen aldaketa gazteleraren eraginez jazo dela ondorioztatu du. Ikerlari honen ustetan, beraz, joskera mailako transferentzia posiblea da.

Bestetik, Morfologia Distributiboaren Teoria erabilia, eta arau sintaktiko, morfologiko eta fonologikoak aintzakotzat hartuta, Zamudioko euskarazko aditz laguntzaileak aztertu dituzte Arregi eta Nevins-ek.

Azkenik, ikerketa-proiektu baterako proposamena egin dute Aurrekoetxea eta Ormaetxeak “Euskararen atlas sozio-geolinguistikoa” ikerketa-proiektua” izenburupeko artikuluan. Euskararen aldagarritasuna adin-talde bitan dute aztergai, talde gazteagoan batuaren indar bateratzaileak euskalkiari asko eragin diola hipotesizat hartuta. Ikerketa honek geolinguistika eta soziolinguistika arloak uztartu gura ditu.

Aplikazio mailan, hezkuntza munduan eta hizkuntza tratamenduaren inguruan burututakoak ditugu. *Euskalinguako* aurreko zenbaki batzuetan argitaratutakoaren ildotik, Bilbao, Euzkurdia eta Perez Urrazak azken sei urtean testuliburuetan eduki batzuk maiztasunean gora egin duten bitartean (paisaia, historia, pertsonaia eta Europa) beste batzuk (familia eta hezkuntza) behera egin dutela erakusten digute.

Emozioak biltzen dituen datu basearen berri ematen dute Aholab taldeko Saratzaga, Navas, Hernaez eta Sanchezek. Euskara Batuko emozio oinarritzaren eredu prosodikoak aztertu ahal izateko ezinbestekoa da datu base hau. Bestetik, euskararen, eta euskara batuaren, sintesia egiteko eta hobetzeko beharrezko dugu datu base handia. Datuak jasotzeko esatari profesional biren laguntza erabili dute.

Agur esan aurretik, aurrerantzean *Euskalingua* 10aren eta gainontzekoen ardura beste taldekide batek hartuko du eta, bederatzi zenbaki hauetan modu baten edo bestean esku hartu duzuen guztioi eskerrak eman gura dizkizuet: Mendebaldekiei eta bereziki Iñaki Gaminderi beti egin duen ahaleginagatik, zenbaki guztietako idazleei haien ekarpena garrantzitsuena da

eta, Aholabeko Jon Sanchezi aldizkaria formatu elektronikoan guztiz era profesionalean taxutzeagatik, Javi Cillero itzultzaileari ingelesezko testuak ederto eta eskatuta segituan egokitzeagatik, Lorea Unamunori bere prestutasunagatik eta bulegoko beharra ederto egiteagatik eta, azkenik, aldizkaria plazaratzea posible egin duten Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailari

eta BBKri, diruz laguntzeagatik eta gogotsu sustatzeagatik. *Euskalinguak* bidetxo egin du honezkero eta oraindik askoz bide luzeagoa egingo duena seguru nago. Horretarako, idazle, bidali zure ekarpenak Mendebalde Kultura Alkartera (mendebalde@euskalnet.net) eta, irakurle, berriro maiatzeko Mendebalde Jardunaldien inguruan egongo gara.

Esti Amorrortu, editorea